

Liburutegia

PILAR IPARRAGIRRE



El canto de los grillos

[Edorta Jimenez](#)

TTARTALO

192 orrialde

14 euro

Kilkerren botsak gaztelaniaz

El canto de los grillos Edorta Jimenezek 2003. urtean Susa argitaletxearen eskutik kaleratu zuen *Kilkerren botsak* nobelaren gaztelaniazko bertsioa da. Ttartalo argitaletxeak plazaratu du eta Bego Montoriorena da itzulpena. 1936ko gerran Errepublikaren aurkako matxinoak Bizkaiaz jabetzeaz zeudenean bizi ziren une latzak gogorarazten ditu nobelak, Euzko Jaur-laritzaren segurtasun zerbitzueta lan egin zuen gudari zahar baten oroitzapenen bidez. Garaiko txosten oso baliotsuak gordetzen ditu gudari horrek, besteak beste, Alejandro Mallona Mundakako alkate zenezan hainbat faxistei bizia salbatu zien gizona fusilatzearen zergatiak eta heriotz horren errudunen izenak agerian uzten dituztenak. ■

SOS Printzesak-en abentura berria

Saharako eguzki kiskalgarritan aurkitu ditugu oraingoan SOS Printzesak agentziako Aglae andereñoa eta Napoleon laguntzaile zintzoa. Han, basamortuaren erdian, neskato bat aurkituko dute konortea galduta. Leila du izena eta Mokhart xekearen alaba da. Triste dago gaztetxo, irakurtzen eta idazten ikasi nahi lukeelako, noizbait sendagile ona izateko, baina bere ametsei uko egin beharko die ezinbestean, aitak xeke beldurgarri baten semearekin ezkondu nahi duelako. Madrud da xeke horren izena eta bere semearekin ezkontzen bada ez omen du gehiago printzesaren herriaren aurka erasoko. SOS Printzesak agentziakoek lasai egoteko esango diote Leilari, beraiek konponduko dutela dena, kosta ahala kosta. ■



Basamortuan galduta

[Christian Jolibois,](#)
[Christian Heinrich](#)

IBAZABAL

48 orrialde

6,80 euro



Tunela

[Ernesto Sabato](#)

ALBERDANIA, ELKAR

154 orrialde


9,76 euro

Ulertzen duen pertsona bakarraren hiltzailearen aitortza

Ernesto Sabato idazle argentinarrek argitaratutako trilogiaren aurreneko liburua da Mikel Garmendiak Literatura Unibertsala sailerako euskaratu duen *Tunela* (1948) —*Sobre héroes y tumbas* (1961) eta *Abaddón el exterminador* (1974) dira beste biak—. Preso dagoen gizon batek bere izaera ulertzen zuen pertsona bakarra hiltzeko izan zituen arrazoia azaltzen ditu xehetasun guztiz liburuan, baita hainbeste maite zuen emakumea akabatu izanak sortzen dion arrangurak ere. Amodio sukartsu eta gaixotiak elkartu zuen Juan Pablo Castel margolaria biktima izango zuen Maria Iribarnerekin. Jeloskorkeriak eta emakumea guztiz berea ez izatearen sentipenak eramango dute gizona bikotekidea erailtzera. ■

Eduki ugari azken Euskera-n

Euskera aldizkariaren azken zenbakian honako gai hauek aurki daitezke, besteak beste: Ana M^a Toledo eta Patxi Salaberri Euskaltzaindian sartzea; Joan Perez Lazarraga (1550-1605) idazlearen IV. mendeurrena; Andres Urrutiak Juan San Martin euskaltzain osoa Eibarko seme kuttun izendatu izanaz idatzitakoa; Euskaltzaindiaren barne-historiaz Xabier Kintanak eta Piarres Xarrittonek diotena; 2006. urtean akademiak izandako batzar-agiriak; Espainiako Erresumako autonomia-erkidegoen, probintzien eta probintzia-hiriburuen izenen gainean Euskaltzaindiak erabakitako arauak; Azkue bibliotekaren katalogazio erregelak; eta Hizkuntza gaitasun agiria Iparaldean: D-mailako hizkuntza gaitasun agiriaz Piarres Xarrittonek idatzia. ■



Euskera

[Batzen artean](#)

EUSKALTZAINDIA

720 orrialde

16,50 euro



Arkitektoa

Txema Garcia-Viana *Kartxi*EUSKALTZAINDIA,
BBK FUNDAZIOA

135 orrialde

6 euro

XIII. mendean Donostia erre zutenekoa

Txema Garcia-Viana *Kartxi* XIII. mendeko Donostiako giroa azaltzen duen *Arkitektoa* nobelarekin irabazi zuen iaz Euskaltzaindiak eta BBK Fundazioak urtero antolatu ohi duten Txomin Agirre literatur lehiaketa. Gaztelako erresumara bildu berria da Donostia eta gaskoiak jaun eta jabe dira; halere, ez dute lortu hiriko eta harresiaz kanpoko euskaldun matxinoen ahotsa isiltzea, eta haien ekintzen ondorioak jasaten dituzte maiz. Giro horretan, inoiz egin den elizarik handiena eta ederrena egiteko agindua eman diote gaskoiek Gonzalo Montilla arkitektoari. Baina orubeko oinarri

zaharren birrintze lanetan ari direla, neska baten gorpua aurkituko dute horma artean sartuta. **I**

Woody Allenen ironiaz betetako hemezortzi testu euskaraz

Komedia-sketchez osatutako hiru bilduma kaleratuak zituen Woody Allenek *Mere Anarchy* –Oskar Aranek Meettok argitaletxerako euskaratu duen *Anarkia hutsa*–2007an plazaratu aurretik. Hemezortzi saiakera komiko biltzen ditu liburu honek, Woody Allenek filmetarako zein idatzietarako hain maite dituen gogoeta gai ugarien gainean: bere une depresiboetatik atera nahian dabilenean


gizarteak “altxatzeko” eskaintzen dizkion bide antzuak, eta Woody Allenek besteei “laguntzeko” dituenak, esate baterako. **I**

Anarkia hutsa

Woody Allen

MEETTOK

190 orrialde / 15 euro



KARMELE JAIO

«Pertsonaia zoriontsuek ez daukate istoriorik»

Ezberdintasun handia al dago *Hamabost zauri*-ko ipuinetatik *Zu bezain ahul*-ekoetara?

Ildo bertsutik doazela esan daiteke, baina agian helduagoak dira oraingoak. Izan ere, testuak biluzten saiatu naiz, bisuteriazko hitzak edo apaingarriak baino ez direnak alde batera uzten eta ipuinean funtzio bat betetzen dutenak baino ez mantentzen. Gaietan, berriz agertzen dira inkomunikazioa eta barne hizketak, baina oraingoetan pertsonen hauskortasuna edo biguntasuna da nabarmen.

Urtetan ikusi gabe egondakoek berriz elkar ikustean sor daitekeen asalduran erreparatu duzu.

Esaten da ibaia beti dela bera, baina eramaten duen ura beti ezberdina. Gaur ez gara atzo izan ginen pertsona bera. Hau erakusteko, joko handia ematen dute denbora askoan ikusi gabeko pertsonaiei topo egiteak. Oso agerian geratzen da egoera horietan gauzak etengabe aldatzen direla. Askotan, gainera, horrelako enkontruak gertatu arte norbera ez da konturatzen hainbeste aldatu denik. Ispilu batean bezala ikusten du bere burua pertsonaiaik aspaldiko laguna ikusitakoan. Ipuin batean esaten den bezala, bestearen zimurretan ikusten ditu norberak bereak. Eta ez naiz zimur fisikoez bakarrik ari. **Nolanahi ere, istorio gazi-gozo samarrak dira hauek.**

Mina, beldurra, ezinegon sortzen duten egoeretan baino ez ditut aurkitzen nik istorioak. Nire ustez, pertsonaia zoriontsuek ez daukate istoriorik. Minik edo egonezinik ez badago, ez dut ikusten zer kontatu. Baina egoera hauek kontatzean ez dut tonu tragikorik erabili nahi izan, eta agian horregatik geratzen da zapore gazi-gozo hori.



KARLOS CORBELLA

Karmele Jaioaren bigarren ipuin bilduma

Negozio munduan murgildurik daraman bizimoduagatik emazteak berarekiko zuen arreta galtzen ari dela ohartzen den gizonaren mikatza; hamasei urte preso egondako gizonak eta beste hainbeste herritik kanpo pasatako emakumeak topo egindakoan sortutako durduza; bizitzaren gogorra jasan duen andre bat eta eskolan baztertua izan zen neska batek elkarrekin topo egitean sentitzen dutena; hamasei urteko neskato baten eta bere aitaren artean dagoen ekaitza; etxean jasotako tratatu txarren ondorioak; ama batek bere seme nerabeen sumatzen duen hotsasuna; gaueko printzesak drogaren menpe egotera ino daraman gainbehera; haurdun geratzeko esperantzak galtzen dituen emakumearen barrua; askatasuna kentzen dion seme txikiak ama gazte bati emandako irakaspena; senar-emazteen ohi-

egileari galdezka



Zu bezain ahul

Karmele Jaio

ELKAR

132 orrialde

12,50 euro

kotasunetik asperdurara bitarteko muga lausoa; edo jaun eta jabe dela sentitzetik bere burua heriotzaren atzaparretan ikustera dagoen jauzia... Horrelakoxeak dira Karmele Jaio *Zu bezain ahul* izenburuko ipuin bilduman azaltzen dituen gaiak. Pertsonaiei ahulunean arakatzeko duen egi-leak bereziki, denok gare-lako ahul, eta bere ustez, zaurietatik sortzen dire-lako ipuinak. **■**